

USURBIL / ' Irakurri eta oparitu ' egitasmoa euskarazko irakurketa sustatzeko

USURBIL. DV. Topaguneak (Euskara elkarten federazioak) eta Noaia! Kultur Elkartek sustatutako ' Irakurri eta oparitu ' egitasmoa martxan da dagoeneko. Udalaren, Udarregi ikastolaren eta Lizardi eta Laurok liburudenden laguntzarekin jarri zen martxan ekimen berezi hau. Irakurketa sustatzea da egitasmoaren helburu nagusia eta bide batez, euskararen erabilera gozagarria bultzatu nahi dute Topagunea eta Noaia!k.

Bi hilabetez, ekainaren 22a bitartean, Usurbilgo udal liburutegiko apal berezitu batean 100 liburu jarrita daude, adin tarteka sailkatuta. Apalategi honen ondoan liburutegiko ordenagailu bat dago. Ordenagailu honetan, egitasmorako propio sorturiko webgunean, kontsultatuko ahal izango dira: liburuen gaineko iruzkinak, beste irakurleen iritziak, idazleen biografia eta bibliografia...

Zein da kanpaina honen bereizgarritasuna? Demagun pertsona batek maileguan (gehienez 15 egun) harturiko liburu bat irakurri eta gustuko duela. Liburu hori erosi eta beste pertsona bati oparitu nahi badio, ' Irakurri eta oparitu ' egitasmoaren abantailez baliatu ahal izango da.

Alde batetik, liburutegian hartutako liburuari dagokion fitxa beteko du eta berau betetzerakoan deskontu txartela emango diote irakurleari. Ondoren, Laurok edo Lizardi liburudendetan erabili ahal izango da deskontu txartel hori. Honela, txartel horrekin %25 merkeago lortuko du irakurritako liburua Laurok edo Lizardi dendetan erosiz gero.

Noaia!ko bazkideen kasuan, beherapena %50ekoa izango da. Horretarako bazkide txartela erakutsi beharko diote Laurok edo Lizardiko liburu saltzaileari, edo izena eman, honek izango duen bazkide zerrendan begiratu dezan. Baldintza horiek betez gero, merkeago lortuko du liburua, baina ez du berak eramango liburua. Oparia jasoko duen lagunaren helbidea utziko du liburu dendan eta, nahi izanez gero, postala edo oharra idatziko dio. Noaia! Kultur Elkarteko kideen esku geratzen da oparia hartzaileari, emandako helbidera, eramatea.